

€konomiarenKZ

Euskal Ekonomiaren Kazeta

9. alea • 2009ko Otsaila • Doaneko Alea • Hirugarren Urtea •
• Harpidetzak: 944213031 • Lege Gordailua: BI - 0371 - 08
Orain ere Interneten: www.ekonomiarenkz.eu

Egin zaitez harpide!

Ekonomiaren KZ etxean hilerdo doan jaso nahi baduzu, bidal ezazu ondorengo kupoa honako helbidera:
• 612 Posta Kutxatila. 48080 Bilbo,
• edo idatz ezazu ekonomiarenkz@leizaola.org posta helbidera, zure izen-deiturak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa adieraziz.
ABIZENAK: _____ IZENA: _____
HELBIDEA: _____
TELEFONOA: _____ E-MAIL: _____
HERRIA: _____ PK.: _____



Euskal enpresen nazioartekotzea

Euskal enpresen presentzia nazioarteko mailan gero eta oparagoa da. Izan ere, sarritan zenbait enpresentzat "asmoa" baino, "beharra" bilakatzen da kanpora joatea, hemengo merkatuko zati handiagorik bereganatu ezin dutelako nahiz negozioa garatzeko ezinbestekoa egiten zaielako ere. Enpresaren tamainak badu eragina atzerriara iretzearen erabakia hartzen denean? Krisi garaian ere enpresek kanpora doazte?

10-11. orrialdea

"Egungo krisialdia oso larria da", dio Confebaskek



Euskal Enpresarien Elkarteak %6,5eko langabezia-tasak aurreikusten ditu 2009rako. Bere iritziz, Euskal Autonomia Erkidego osoan 10.000 lanpostu desagertuko dira. Confebaskek enpresaren "likideziaren beharra" azpimarratu zuen Forum Europa Tribuna Euskadi jardunaldietan.

4. orrialdea



Cebeken aburuz, 5.000 lanpostu galduko ditu Bizkaiak

Jose Maria Vázquez Eguskiza Bizkaiko Enpresarien Konfederazioko presidentek nazioarteko hitzarmen ekonomiko global berri baten beharra nabarmendu zuen, "merkatua erregulatzeko gardentasuna" gailentzeko, banketxe eta kontsumitzaileen konfidantza berreskuratzeko asmoz.

3. orrialdea

ALE HONETAN

• Mundura begira



Hilabete latzak alor teknologikoko enpresentzat

5. orr.

• Elkarrizketa



Jon Aldeiturriaga
Bilboko Alde Zaharreko Merkatarien kudeatzailea

8-9. orr.

• Elkarrizketa



Pello González
Gipuzkoako Ekonomia eta Ogasun Departamentuko foru diputatua

12. orr.

STAFF

HARREMANETARAKO TELEFONOA: 94 421 30 31
 E-MAILA: ekonomiaenkz@leizaola.org
 POSTA HELBIDEA: 612 Posta Kutxatila, 48000 Bilbao
 TESTUAK ETA ARGAZKIAK: Iais San Jose
 DISENUA ETA MAKETAZIOA: Gonzalo Peña
 EUSKARAREN ARDURADUNA: Labayru Iñestegia
 EGILEA: Leizaola Elkarte
 HARPIDETZAK: 94 421 30 31 telefonoan.



Bizkaiko Foru Aldundia
 Diputación Foral de Bizkaia
 Ekintza honek Bizkaiko Foru
 Aldundiatik Kulturako Sailaren
 laguntza jasotzen du.



KULTURA SAILA
 Hezkuntza Politikarako Saiburuordetza
 DEPARTAMENTO DE CULTURA
 Viceconsejería de Política Lingüística

KULTURA SAILAK
 (KULTURA SAILA HIZKUNTZA
 POLITIKARAKO
 SAIBURUORDETZA)
 DIRUZ LAGUNDUTAKO

ADITUAREN GORA / BEHERA



Sergio Etxebarria

BILBAOCENTRO
 elkarteko presidentea

Bilboko Komertzioaren egoera

Gaur egun, Bizkaia eskaintzen duen komertzioaren eskaria bildu egin da eta horren ondorioz, gune haiekin kanpo dauden komertzioek asko pairatzen dute egungo krisia, kontsumitzaileek eskura duten zonaldekanpo geratzen direlako. Izan ere, hiriarren erdialdeak merkataritza-zentro bihurtzen ari du. Merkataritza-zentro handiekin lehiatzen ari dute Bilboko kaleko komertzioek. Egia da merkataritza-zentro erraldoiek Bilboko erdiguneak ez dituen zenbait abantaila eskaintzen dituztela, doako aparkaleku, esaterako. Baina hiriko merkataritzak, bestalde, berezitasun nabarmena eskaintzen du, espezializazioa, hain zuzen ere. Bi komertzio moten arteko lehia horretan, argi daukat hiriak beti ere biziraungo duela, komertzioak edozein gizariteetan funtsezkoa den zerbitzua eskaintzen duelako. Bilboko komertzioek, haren garapenei eusteko, eskaria bildu behar izango dute, hots, gero eta gehiago ematen ari den joera hori areagotzea.

GORA

Foru Ogasuneko Iruzurraren kontrako Planak 413 milioi euro berreskuratu ditu

Bizkaiko Foru Ogasunak azken 18 hilabeteetan 413 milioi euroko iruzurra aurkitu ditu Aldundiak prestatutako Iruzurraren aurkako Borroka Planaren ondorioz. Foru Aldundiko Ekonomia eta Ogasun Saileko arduraduna den Jose Maria Iruarizagaren aburuz, krisialdi ekonomikoetan ere "ordaindu nahi ez dutenen aurka" jo behar da, "egun zenbait enpresek trikimailuak erabil ditzaketelako ordaintzeari uko egiteko". Aldundiko Ogasuneko Sailak 918.000 ikerkuntza burutu ditu 2007ko uztailatik 2008ko abendua arte. Haietatik 26 us-

tezko delitu bideratu ditu EAEko Auzitegi Nagusiko fiskalera.

Bizkaian aurkitzen diren irregulartasun gehienak BEZ, PFEZ eta Gizarte Zergaren ordainketa ezarekin erlazionatutakoak dira. Eraikuntza-enpresak, telefono konpainiak eta informatikako tramankuluen alorrak dira, batez ere, iruzurra egin duten alorrak. 2003 urtetik hona, Bizkaiko Aldundiko Planak iruzurren 1.300 milioi euro berreskuratu ditu. Zailtasun ekonomikoko garaletan zergadun guztion arteko elkartasuna inoiz baino beharrezkoagoa egiten da.



Iruarizaga Diputatuak iruzurraren aurkako kanpainan dihardu

BEHERA

Ekoizpen industrialak azken 16 urteetako beherapen handiena izan du

Iazko jarduera ekonomikoaren beherakada ekoizpen industrialean izan du eragin zuzena eta testuinguru honetan ulertu behar da Estatistikarako Institutu Nazionalak argitaratu berri duen informazioa. Erakunde honek marneiatzen dituen datuen arabera, Ekoizpen Industrialeko Indizeak %17,2ko beherakada izan du 2008ko azaroan aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta.

Produktzioaren beherakada handiena jaso duten sektoreak motorrezko ibilgailuen ekoizpena, metalurgia eta bulegotarako makinak eta informatika ekipoen ekoizpena izan dira, %39,3, %32,8 eta %30,8ko beherakadarekin, hurrenez hurren. Iazko azaroan gora egin zuten alor barrak garraibidetakoko bestelako materialen ekoizpena (%16a) eta erregaien fintzea (%3,2) izan ziren.

Krisialdiaren aurrean Euskadik baldintza hobekoak izan dituelako, datu hauek ez dira Espainiar estatuarekin konparatuta bezain larriak. Horrela, euskal Ekoizpen Industrialeko Indizeak %11,9ko jaitsiera izan du, 2008ko urtarilatik azarora doan epean batzbesteko beherakada %5,8koa izanda.



KOMIKIA



ALBISTEAK



Jose María Vázquez Eguskiza, Cebekeko presidentea, argazkiaren erdialdean

Cebekek 5.000 lanposturen suntsiketa espero du Bizkaian

2008ko ekitaldiaren balorazioa eta urte honetarako espero diren datuak aurkeztu zituen urtarrean Bizkaiko Enpresarien Konfederazioak (Cebeke). Jose María Vázquez Eguskiza presidentearen hitzetan, 2009an Bizkaian "ia ez da hazkunde ekonomikorik espero", eta "unean-uneko baldintza ekonomikoek hala erakusten badute, %0,5eko hazkundera" izan dezake Bizkaiko Lurralde Historikoak, hori bai, bai-

regia izanda, Eguskizak adierazi duen bezala. Cebekek esku artean dituen datuen arabera, ekonomia bizkaitarrak "era nabarmenean" egin du atzera.

Ugazaba bizkaitarraren txostenak gure ekonomiaren sostengua diren faktoreak definitu zituen, hala nola, Bizkaia iraunkortasunaren alorrean duen menpekotasun eskasa eta Administrazio Publikoak azpiegituren proiektuei eusten jarrai-

tzeko duten joera, hain zuzen ere. Ildo honetan, Loiu-ko aireportuaren birmoldaketa, Supersur errepidea eta euskal Y trenbidea, besteak beste, aipatu zituen Eguskizak.

%5 inguruko langabezia-tasa

Alor ekonomikoei dagokionez, jardueren eta salmenten beherkada handiena nabaritu dutenak industria eta merkataritza sektoreak

izan dira. Bai handizkako merkataritzak baita komertzio txikiak ere, "hondatze nabarmena" biziko dute hurrengo hilabeteetan, Eguskizak adierazitakoaren arabera. Kontsumoaren eta salmenten jaisierarekin batera, langabezia-tasek gora egingo dute. 2009rako 5.000 lanpostu inguruko suntsiketa aurreikusten du Cebekek Bizkaian. Gauzak horrela, "kezka handiz" hartzen du Elkarteak datu hau, langabezia-tasa %4,5-5ean zehaztu baitute. Egoera latz honen aurrean, zenbait datu positibo azalarazi zituen Elkarteak, hala nola, erregaiaren prezioaren eta inflazioaren beherkada; hala eta guztiz ere, "horrek ez digu lehia-kortasun dosirik eskainiko". 2012. urtera arte ez dituzte %2ko inguruko tasak espero, hazkunderai dagokionez. Enpresak pairatzen ari diren kredituen murrizketari buruz, "zailtasun handien aurrean aurkitzen direla" adierazi zuen Elkarteko presidentek. "Euskal enpresei likidezia erraztu behar zaie", eskatu zuen, eta horrekin lotuta, Cebekeko bazkideei maileguak luzatzeko BBK-rekin duen lankidetzaz hitzarmena nabarmendu zuen presidentek. Dirua mugituzko, Bizkaiko Enpresarien Elkarteak "nazioarteko ordena ekonomiko berriaren beharra" azpimarratu zuen. Haien ustez, "nazioarteko banku handiek txikiei zer egin behar duten esatea" behar da, merkatuaren konfiantza berreskuratzeko as-

moz, hain zuzen ere. Adostasun global hori "neurri zehaztuetan" gauzatu behar delako iritzikoa da Eguskiza, "merkaturaren erregulatzeko kode etikoa eta, batez ere, garrantasuna gailenduz". Ildo berean, banketxei eskaintzen zaie diru publikoaren gaineko kontrola handiagotzeko eskatu zuen presidentek.

Enpresak berritzeko garaia

Euskal sindikatuen kontrako kritiken berri ere eman zuen Cebekek. Elkarteak euskal sindikatuei leporatu zien "hitze egiteko ohiturarik" ez izatea, izan ere, "gizarteragilearen arteko elkarriketa etenda dago egun". Haien ustez, "hitze egiteko ohitura hori berreskuratu behar da", gauzak ondo doazenean, baina, bereziki, "egoera oker dagoenean".

Etorkizunari begira, "merkaturaren berbizitza" espero dute, hau da, "kontsumitzaileen beharrak berriro ere itzuliko direla" eta "era indaratsu", gainera; "denborarekin, beharrendaren itzaropena handitzen doalako". Bitartean, egoera gaitzetzeko, Cebekek energia proposatzen du ekonomiaren motor legez. "Energiaren momentu da", baieztatu zuen presidentek. Horrekin batera, euskal enpresei gomendioak egin zituen, hala nola, "zuhurtziaz aritzea" eta krisi garaia "negozioa berritzeko, langileak hezteko eta merkaturari berriki arakatzeko" erabilteza.

Banestok mailegu gutxiago ematea aurreikusten du

2008ko emaitzak eta datorren ekitaldirako aurreikuspenak aurkeztu zituen Banestok pasa den hilean. Ana Patricia Botín presidente duen finantza-erakundeak emaitza positiboak aurkeztu ditu, banketxe espainiarrek aurreko ekitaldian baino %2 gehiago irabazi baitu, 779,8 milioi euro, hain zuzen ere. Zifra orokorreki errepertatuz, irabazien portzentajea %7ra heldu zen, baina 60 milioi euroko aparteko gordailua ireki du banketxeak, "helburu zehatzik ez duen gordailua, baina urte konplikatu baten aurrean zuhurtziaz aritzeko asmoz", Banestoko zuzendariaren hitzetan.

Berankortasunari dagokionez, Banestok ordaindu gabeko maileguen gorakada izan du, 2007ko %0,47tik 2008ko %1,62ra. Arestian aipatutako gordailu berezia dela eta, Banesto bezeroen berankortasuna maneiatzeko prest dagoela adierazi du Botinek. Espainiar estatuko Gobernuak banketxeen eskura jarritako laguntza ekonomikoetara jotzeari uko egin dio Botinek, "berankortasunaren estaldura tasa %105ekoa" delako.

Kreditu gutxiago

Barne Produktu Gordin espainiarren murrizketa ere antzeman dute txostenean, %1 eta %1,5ekoa izango

dena. 2009a "oso urte korapilatsu" bezala definitu zuen Botinek. Maileguak emateari buruz, presidentek kreditu gutxiago emango direla aurreratu zuen. Espainiar estatuko Gobernuko presidente Jose Luis Rodríguez Zapaterok pasa den hilean maileguak ematean "zuhurregia" bezala definitu zuen Banesto. Salaketa hauei aurre egingez, Botinek honakoa esan zuen: "gustatuko litzaiguke maileguak ematearen joerari eustea, baina kaudimendunak diren bezeroen eskakizunaren menpean gaude", hots, dirua utzi baino lehen, bezero horrek mailegua itzultzeko bideragarritasunik duen aztertu behar dutela.



Ana Patricia Botín, Banestoko presidentea

ALBISTEAK

Confebaskek %6,5eko langabezia-tasa aurreikusten du 2009ko amaierarako

Euskal Enpresarien Konfederakuntzak %6,5eko langabezia-tasak espero ditu 2009rako, pasa den urtarrilean Forum Europa Tribuna Euskadik antolatutako prentsaurrekoan adierazi zuen bezala. Confebaskeko presidentea den Miguel Lazpiur krisialdiaren jatorriaz mintzatu zen, eta hura gainditzeko gizarteak eman behar dituen urratsak zehaztu zituen. Lazpiurrek "denboran luzeegi mantendu ezinezko eredu ekonomiko baten agorpena" bezala definitu zuen egungo egoera ekonomikoa. Bere ustez, finantza-krisialdia "kaleko ekonomia errealerara mugitu da", emaitza "inoiz izan dugun krisirik azkarrena eta globalena" izanda.

"Egungo krisialdia oso larria da", onartu zuen Confebaskeko presidentek. Euskal ugazabak aurkeztutako datuen arabera, 2008an baino "10.000 lanpostu gutxiago" izango dira Euskadin, langabezia-tasa %6,5era iritsiz. Aurreikuspenen arabera, ez dute Euskal Autonomia Erkidegorako hazkunde nabarmenik espero, %0,6 ingurukoa; "behintzat, atzeraldirik ez dugu espero", etsi zuen Confebaskeko presidentek. Krisialdiaren irtenbidea lortzeko "errezeta magikorik" ez dagoela adierazi zuen, eta baita bertatik irtetea kostatu



Miguel Lazpiur, Confebaskeko presidentea, Bilbon izandako jardunaldietan

egingo zaigula ere. Hala ere, Confebaskek posible ikusten du krisialdia gainditzea. Ugazaben buruak urte honen amaierarako aurreikusten ditu susperraldi ekonomikoaren lehenengo zantzuak.

Langileen kaleratzea

Enpresei dagokienez, berriak izango dira bereziki diru falta hori pairatuko dutenak. "Enpresek krisian beko horretan mantentzeko tartea oraindik badute ere", onetsi zuen Lazpiurrek; "kri-

sialdia denboran gehiegi luzatzen bada, erreserbekin amaitzeko arriskuan gaude". Likidezia bermatzeko helburuarekin, Administrazio Publikoek dirua lortzea errazteko lagundu dezatela eskatu zuen. Sindikatuei, bestalde, "elkarrizketarako prest egotea" eskatu zien enplegua mantendu ahal izateko, "azken finean, guztion helburua baita".

Lazpiurren aburuz, bestelako neurriek ez funtzionatzeak behartzen ditu enprezak enplegu-erregulazioko

espedientearen prozesua burutzera; "enpresa bati ere ez zaio gustatzen bere langileak kaleratzea", are gehiago, "hura saihesten ahal egintzen dira beti ere". Hala eta guztiz ere, krisialdia era positiboan agertu zuen Lazpiurrek, "krisiek aldatetako suposatzen dituztelako, eta gauzak hobeto egiteko itxaropena ekar dezakete".

BBK eta Kutxaren arteko bat-egitearen porrotari buruz galdetuta, fusioa bertan behara geratu izatearen arrazoiak "politikoa besterik ez

dela" adierazi zuen Confebaskeko presidentek. "Gubat-egitearen alde gaude, eta, azkenean, berriro ere planteiatuko dela uste dugu", baieztatu zuen, "bateratzeak enpresentzako maileguak erraztea ahalbidetuko bailuke". Martxoko hauteskundeak dagokienez, Lazpiurrek adierazi zuen "enpresariak ez direla politika auzietan sartu behar". Hori bai, euskal patronalaren buruak "erabakiak hartzeko prest dagoen gobernu sendoa" izatea espero du.



%0,5eko hazkundera espero da

2008. urteko urrian argitaratutako aurreikuspen ekonomikoak pasa den hilean berrikustera behartua ikusi du bere burua Eusko Jaurlaritzak. Lehendakariordea den Idoia Zenarruzabeitiak esku artean dituen datuek aurreikusitako hazkundera tasa lehen uste baino baxuagoa izango dela erakutsi dute. Horrela, bada, ekitaldi hone-

Eusko Jaurlaritzak 2009. urterako aurreikuspen ekonomikoak jaitsi ditu

tarako %0,5eko hazkundera espero dute, iazko aurreikuspena baino puntu bat gutxiago. 2008. urteko hazkundera tasa %2,2koa izan zen.

"Oinarri sendoak"

2009. urtea "gogorra, zaila eta konplikatu" izango dela onetsi zuen Zenarruzabeitiak, baina baita euskal ekonomiak "oinarri sendoak" dituela ere. Horren ondorioz, ziklo aldaketa ematen denekarako, Euskadi "hobeto prestatuago" egongo dela uste du Eusko Jaurlaritzak. Krisialdiaren amaierari buruz gal-

detuta, Zenarruzabeitiak azaldu zuen urte honetako lehenengo sei hilabeteetan behar akada izango dela nagusi, urteko bigarren partean "geldialdia" emango delarik. Horrela, bada, 2009ko azken hilabeteetan egoeraren hobekuntzaren lehenengo zantzuak ikusiko ditugula iragarri zuen.

Euskadiko ekonomiarako aurreikusitako hazkunderaren behar akada honetan eragin nabarmena izan du industria alorrak. Izan ere, Euskadik eraikuntzaren alorrarekiko menpekotasun handirik ez badu ere, auto-

mobilgintzako sektorean bereziki nabaria izan da jaitziera hau. Horrela, bada, Eusko Jaurlaritzak %1,1eko jaitziera espero du jardueraren industrialetan. Era berean, langabezia tasak ere berrikusi egin dituzte, %5,1era helduko baita, eta 2009rako 14.000 langabe gehiago espero dituzte Euskadin.

Beste erakundeentzako aurreikuspenekin bat

Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspena OCDE Lankidetzara eta Garapen Ekonomikorako Erakundearen datuekin bat

dator, oro har. Nazioarteko erakunde horren txostenen arabera, euro zonaldeko herrialdeetan BPGren hazkunderaren %0,5eko behar akada espero da. AEBetan hazkunderaren jaitziera %0,9koa izango da.

Jose Maria Echarri Gipuzkoako Merkataritza Garberako presidentek 2008ko abenduan argitaratutako zifrei dagokienez, %0,7ko puntuan definitu zuten 2009. urteko BPGren hazkundera, datu hori "unean-uneko faktore ekonomikoaren menpean" zegoela adierazi bazuten ere.

MUNDURA BEGIRA

Hilabete latzak alor teknologikoko enpresentzat

Azken hilabeteetako krisiaren emaitzak azkenik heldu dira alor teknologikora, eta, horren ondorioz, teknologiarekin erlazionatutako enpresen langileriaren murrizketa egitera behartuta ikusi dute euren burua. The Wall Street Journal-ek 15.000 lanpostutan zehaztu ditu Microsoftek hemendik gutxira egingo dituen kaleratzeak. Iturri horren arabera, bestalde, Microsoftek negozioaren birmoldaketari ekin dio, langileen kaleratze kopuru hori murriztu ahal izateko eta baita gastuak murrizteko ere. Ofizialki, Bill Gates zuzendari zuen enpresak ez du zifra zehatzik argitaratu. Egun, erraldoi informatikoak munduan 91.000 pertsonari ematen die lan.

Google, Yahoo, Sony...

Google bezalako Interneteko enpresak ere zailtasun ekonomikoak dituzte aspalditik, eta urritik jasaten ari diren mozkinen jaitzierari aurre egiteko, langileriaren murrizketak egin behar izan dituzte. Horrela, bada, azpikontrataturiko eta aldi baterako 100 langile inguruk Googlen lan egiteari utziko diote. Kopuruari begira langile gutxi direla ematen badu ere, etorkizunari begira ezin dugu langile gehiagoko kaleratzearen aukera deuseztatu. Googlek bere ingeniari-tzarentroa berrantolatzeari ekin dio irailetik hona, zentro horren kopurua murrizteko asmoz, "eragin-kortasunean irabazteko", konpainiaren presidenteordea den Lazlo Bocken hitzetan. Yahoo, eBay eta Sony bezalako nazioarteko enpresak beren langileriaren %10-20 inguru galdu dute batez beste,

kostuak murrizteko asmoz. Kaleratutako langileak 1.500 izan dira zenbait kasutan; 8.000 langile, besteetan.

2000. urtean Interneteko burbuila zapuztu zenetik, sareko enpresak izan dira sektore ekonomiko hau aurrera ateratu dutenak. Duela 8 urte-tik hona ez dute galera ekonomikorik. Mozkin tarte hain murrizta duen negozio batean, aurten izango duten %3ko irabazien beherakada izugarri nabarmena izan daiteke.

Eredu ekonomiko berriaren bila

Datu hauek momentu txarrean heldu dira, adituen iritziz. Izan ere, egungo eredu ekonomiko berriaren bila aritu behar dira mundu osoko gobernu arduradunak, indarrean orain arte egon dena agortuta baitago askoren aburuz. I+G bezalako alorrean inbertitzea aztertutako irtenbideetako bat da. Egun, ikerkuntza eta garapeneko jardura ekonomikoak Espainiako estatuaren Barne Produktu Gordinaren %2 dira. AEBetan bereziki nabaritu da teknologia sektorearen krisialdia, bertako BPG-ren %7 teknologia eta berrikuntzari baitagokio.

Negozio berria izan daitekeenaren bila ibiltzea bultzatu du krisialdiak. Hori dela eta, Internetek eta puntapuntako teknologiek mozkinen beherakada gelditzeko alor berriak bilatu behar izango dituzte. Bidean, krisiak merkatuko garbiketa egingo du; kaudimen gutxiko nahiz kudeaketa okerra izan dituzten proiektuak bertan behera geratuko dira, eta hori, azken batean, mesedegarria izan daiteke alorarentzat.



Publizitateen diru-sarreraren murrizketa izan du Googlek

Kontsumoaren beherakada, arrazoi nagusia

Enpresa teknologikoak beren negozioen berrantolaketa egitera behartu dituzten arrazoiak desberdinak omen dira. AEBetako Silicon Valley-n kokatuta dauden enpresa anitzak izan dira azken hilabeteetan galera handienetarikoa izan dituztenak, haien artean, Google. Enpresa honen funtsa ekonomikoa publikitatean datza. Izan ere, Interneteko enpresen %90 baino gehiago webgune honetan agertzen da. Publizitate zerbitzuen bidez lortzen dituzte irabaziak Googleko arduradunek. Haien eskaintzen dituzten zerbitzuen garapenarako, oro har, I+G alorrean inbertsio indartsua behar da.

Egungo egoera ekonomikoa ikusita, enpresa gehienek publizitate kostuak murriztu dituzte, eta, ondorioz, Google bezalako enpresak mozkinen murrizketa ari dira jasaten. Googlen buruen asmoa da Google Maps bezalako proiektuak sustatzen jarraitzea, beste batzuk momentuz alde batera utzi behar izango dituztelako.

Sony eta Microsoft

8.000 langile inguru kalera-tuko dituen Sonyren kasuan, urte hauetarako zituzten salmenta aurreikuspenak bete ez direlako izan dituzte galerak. Bravia telebista eta PlayStation 3 bezalako gailu elektronikoen salmentek behera egin duten azken hilabeteetan, eta proiektu horiek aurrera ateratzeko egindako inbertsioa ezin izan dute berreskuratu. Microsofti dagokionez, erraldoiak landutako azken sistema eragileak, Windows Vista delakoak, hain zuzen ere, porrota izan du, eta dirutza galdu dute, hiru urteko bizitza izan duen sistema honek ez baitu kontsumitzaileen artean onarpenik lortu.

Kasuan kasu, enpresa teknologikoen mozkinen murrizketaren arrazoiak desberdinak badira ere, amankomunean duten faktore bat dugu, kontsumoaren beherakada, alegia. Krisialdi garaian kontsumo-ondasunak behera doaz. Izan ere, teknologiarekin erlazionatutako ondasunak izaten omen dira gutxiago kontsumitzen direnak, batetik, garestiak direlako, eta, eta bestetik, ez dutelako praktikotasunik eguneroko bizitzan.




Alor teknologikoa, burtsan

Finantza erakundeekin batera, enpresa teknologikoak izan dira burtsan galera azpimarragarrienak izan dituztenak. Adituen iritziz, enpresa horien akzioen baloreak puztuta zeuden pasa den urtearen hasieran, eta, hori dela eta, balorearen erortzea agerikoa izan da.

Beste alorrekin alderatuta, orain arte, enpresa informatikoak dira burtsako galerei ondoen erantzun dietenak. IBM, Dell eta HP bezalako enpresen %28ko galerak izan dituzte batez beste. Interneten presentzia duten enpresen, bestalde, beren akzioen baloreen jaitziera nabarmena izan dute. Googlek burtsako bere balioaren %48 galdu du azken 10 hilabeteetan.

I+G+i ALBISTEAK

Euskadik 552 milioi euro inbertituko ditu nanoteknologia proiektuetan



Inbertisioaren ondorioz, 700 lanpostu espezializatu sortuko dira

Nanobasque Estrategia planaren barnean kokatuta, Eusko Jaurlaritzak datozen urteetan nanoteknologia inbertitzeko eskura izango duen aurrekontua aurkeztu du Ibarretxe lehendakariak. Ibarretxeren aburuz, "Nanobasqueko Estrategiak itxaropenaren aldeko mezua dakar", bai eta Euskadiko bigarren eraldakuntza ekonomikoaren biderako "urratsak" ematea ere. Eraldakuntza hori "ezagutza gizartearen eskutik" etorriko dela adierazi du Lehendakariak, planaren aurkezpenean.

Eredu industrial eta zientifiko berria

Nanobasque Estrategiak nanoteknologia oinarritutako eredu industrial, enpresarial eta zientifikoaren sorkuntza sustatu nahi du. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak 552 milioi euro inbertituko ditu 2009. urtetik 2015. urtera arte. Diru kopuru horretatik, %40 eskal administrazio publikoak jarriko du, hots, 223 milioi euro. Horietatik, 184 milioi euro Eusko Jaurlaritzako Industria Sailaren beraren inbertisioari dagokio.

Planaren helburuen arabera, hemendik 6 urtera arteko epean, Euskadiko 100 enpresa baino gehiago nanoteknologiaren ustiapenean arituko dira, eta 700 lanpostu espezializatu sortzea aurreikusita dago. Egun, mikro eta nanoteknologiaren jarduten duten 80 enpresa daude Euskadin.

Berrikuntza tasarik altuena

Euskadi berrikuntzaren alde egiten ari den apustu garbiren ideia ere sendotu dute Estatistikarako Institutu Nazionalak argitaratu dituen datuek. Espainiar estatuan, Madril, Katalunia eta Euskadi izan dira 2007. urtean berrikuntzan gehien inbertitu duten autonomia erkidegoak. Horrela, bada, posta eta telekomunikazioekin erlazionaturako enpresek euren mozkinen %10,50 bideratu zuten berrikuntzara; I+G zerbitzuen arloko enpresek eta ibilgailu motordunen ekoizpenak, %9,8 eta %8,9, hurrenez hurren. 2007an, berrikuntza teknologikoaren arloko gastuak %9,4 egin zuen gora.

TECNALIA eta CAF, garraio publiko eraginkor eta fidagarrien alde

Garraio publiko eraginkor, seguru eta fidagarria bilatzeko asmoz, CAF garatzen ari den proiektuaren buru bezala agertu da TECNALIA. Horretarako, Garapen Teknologiko eta Industrialeko Zentroaren (CDTI) laguntza jasoko dute. Helburua lau urtez etorkizuneko garraio publikorako teknologia eta kontzeptu berriak bilatzea izango da. Proiektu honek gaur egun erabiltzaileek gehien eskatzen dituzten alderdiak jorratuko ditu: jasangarritasuna, segurtasuna eta fidagarritasuna, hain zuzen ere.



TECNALIAk garraio publikoaren alde egiten du lan


Energia-propulsio berriak

TECNALIAk, CAFekin batera, energiaren propulsio eta biltze-sistema berriak ikerituko ditu, belaualdi berriko bateriak bereziki. Horiei esker, egoera jakin batzuetan fun-

tzionatzeko moduan izango dira garraio-sistemak. Ibilgailu berrien funtzionamenduinguruneen simulazioak ere egingo ditu. Horrela, TECNALIAk motor-kontzeptu berriak proposatu, aztertu eta garatuko ditu, eta, horien artean, esekidura-sistema berri baterako patentea da nabar-menena.

Salmonella ordu batean aurkitzeko txipa garatu du IKERLAN-IK4k

Ordu batean salmonellaren aztarnak detektatzeko gailu berria garatu du IKERLAN-IK4k. OPTOLABCARD Europako proiektuaren barruan, IK4k salmonellaren kostu txikiko eta diagnosi azkarra egiten duen sistema arin, zehatz, eramgarri eta erabiltzeko erraza prestatu du. Erabiltzaileak bi xiringa sartu besterik ez du egin behar, eta ordu bat igarota, azterketaren emaitza eskaintzen du sistemak.


**Aplikazioak**

Gailu berri honen aplikazioak ugariak diren arren, bi dira azpimagarrienak. Batetik, animalien osasunarenganako aplikazioa, salmonellaren detekzioa baserrietako animalietan, alegia. Eta, bestetik, giza osasunarenganako aplikazioa, hau da, detekzioa gizakiarengan. Txip berri honek eskaintzen dituen abantailen artean azkartasuna eta eramangarritasuna aipa ditzakegu.

OPTOLABCARD proiektu europarra 2005ean abiarazi zen, eta bukatzeaz dago. IK4k patentatutako gailu berriak 2,9 milioi euroko aurrekontua izan du, eta nazioarteko 6 herrialdetako 9 erakunderen laguntza jaso du. IK4k txiparen garapen biokimikoa landu du, eta baita horren doikuntzak eta optimizazio lanak ere.

Tuberkulosiaren kontrako sendagaiak ikertuko ditu Nafarroako Unibertsitateak

Nafarroako Unibertsitateak eta sendagaien laborategia den Novartisek tuberkulosiaren aurkako sendagai berriak garatzeko hitzarmena sinatu berri dute. Lankidetzaz harreman horren bidez, Gaiotasun Tropikalen Novartis Institutuak (NITD) eta Nafarroako Unibertsitateko Farmakologia Aplikatuaren Ikerketa Zentroak (CIFA) konposatu eraginkor berriak lortzeko programa batean hartuko dute parte. Lortutako sendagaiak garatze-bidean dauden herrialdeetan eragin handia duen gaixotasunak (tuberkulosia, malaria eta dengea, besteak beste) tratatzeko erabiliko dira. Akordio honek bertako laborategietan egindako ikerketak berrikuntzara pasatzeko eta tuberkulosiaren aurkako osagai aktibo



Tuberkulosiak 1,65 milioi hildako utzi zituen 2007an

berriak medikuen eta gaiotasunaren eskura jartzeko balio izango dio Nafarroako Unibertsitateari. Osasunaren Munduko Erakundearen txostenaren arabera, tuberkulosiak

1,65 milioi hildako eragin zitu 2007an. Keniako Ikerkuntza Institutuko zuzendariaren arabera, munduko bizdako Erakundearen txostenaren herenak dauka tuberkulosiaren germena.

Zentzumenen bidezko analisia garatu du EHUk

Zentzumenen bitartez hainbat elikagairen analisia egiteko metodo berritzailea garatu du EHUko Farmazia Fakultateko Farmazioa eta Elikagaien Zientzia Saileko lantaldeak, LASEHU Zentzumen Analiaren Laborategiak, hain zuzen ere. Dastatzaile talde bat da produktua aztertzen duen tresna. Horrela, talde honek produktu bat dastatzean sortzen diren sententzioak neurtu eta ebaluatu egiten dira. Emaizta hauek ahalik eta fidagarrien izateko, ezaugarri sententzialak ebaluatzeko metodoak garatu behar dira. Horretarako, ekoizleak, gastronomoak eta teknikariak bezalako adituak biltzen dira produktuaren kalitatea neurtzeko behar diren parametroak ezartzeko asmoz. Behin metodoa garatuta, dastatzaile taldeak aukeraketa froga batzuk gainditu behar ditu eta ondoren, hilabete

batzuetan zehar beharrezko zentzumen-sentsibilitatea dutela ziurtatzeko, entrenamendu berezi bat jasotzen dute, erreferentzien arabera ebaluatzen ikasi dezaten. Taldea entrenatu ondoren, usaimen eta dastamen bidezko dastapena burutzen dute. Lortutako datuekin, produktu bakoitzean dastatzaileek identifikatu dituzten ezaugarri positibo eta negatiboaren txostena idazten du ikertzaileak, produktuaren fitxa teknikoan osatuz. Fitxa hauekin produktuaren ezaugarri sententzialen garapena ere azter daiteke.

Kalitatea bermatzeko

EHUko ikertzaileen aburuz, analisi-mota hori aplikatuz, "produktuen gutxieneko kalitatea berma dezakete ekoizleek". Azterketa mota hauek ehugintza, automobilgintza eta elikagiegintza bezalako



Zentzumen bidezko metodoak garatu dituen EHUko lantaldeak

alorretan erabiltzen ohi dira. EHUko Zentzumen Analiaren Laborategia honek, zehazki, Idiazabal gazta eta

Arabako Errioxako ardo beltz gaztearen analisia burutzeko metodoak garatu ditu. Orain, Bizkaiko Txakoli-

naren, Arabako Txakolinaren eta Euskal Okelaren analisi-metodoak garatzen dabiltzate orain.

Entra, estamos abiertos.
Toda la información sin barreras en deia.com

ELKARRIZKETA

JON ALDAITURRIAGA

Bilboko Alde Zaharreko Merkatarien Elkarteko kudeatzailea

"Bilbo bera da merkataritza-zentrorik handiena"


Garai txarretan eta diruaren eskasia dagoenean, merkatarari erretiratuak eta txikiak izaten omen dira lehenengoak nabaritzen. Dramatistatik ihes egiten duen berbaldiarekin, Bilboko Alde Zaharreko Merkatarien Elkarteko kudeatzailea den Jon Aldaiturriagak Plaza Berriko egoitzan jaso du Ekonomiaren Kazeta. Hurbila eta umoretsua, Aldaiturriagak uko egiten dio krisialdiaren aurrean biktima bezala agertzearen irudiarri, eta tinko mantentzen da zenbait merkatarari elkarteren "gezurrak" azaltzen dituenengan. Ika-mika ugari sor ditzaketen hitzak ditugu hemen.

Nolakoa izan da ekitaldi honetako merkealdien hasiera?

Lehenengo eguna ona izan zen. Hala ere, ez zait gustatu zer-nolako tratamendua eman zioten zenbait egunkari gai honi. Izan ere, zenbait komunikabidek jendetza arrakastaren sinonimotzat hartu zuten eta ez da beti horrela izaten. Harritu ninduen da merkealdietako lehenengo eguneko ia lehenengo minututik genuela jendea erosketak egiten. Baina ez milaka pertsona, zenbait egunkari argitaratu zuten bezala. Lehenengo ordu haietatik ikusi genituen gure dendetan pertsona asko, eskuetan poltsak zera-matzatenak. Lehenengo egunean asko eta ondo saldu genuen. Horrek zer esan nahi du? Jendea merkealdia heltzeko irrikaz zegoen. Kontsumitzaileak badaki aurreko hilabeteko kanpaina bereziki ona izan ez dela, eta aurreko salmentak onak izan ez badira, oro har, merkealdiak eskaintza inportanteak izaten ditu, bai prezioaren aldetik baita produktu kopuruaren aldetik ere. Kostatu egin zaigu, baina, azkenean, kanpaina aurrera atera dugu.

Merkatarien elkarteek denbora zeramatzen kanpaina txarra baino txarragoa izan dela salatzen. Nola bizi dituzue egungo zailtasun ekonomikoak?

Merkatariorik era bitxian nabaritu dugu krisialdia. Egunkari igarotzen diren heinean, krisialdia egunkarietako orrialdeetako protagonismoa galtzen doa. Baudaude auzi



Aldaiturriaga, Bilboko Alde Zaharreko Merkatarien elkartearen egoitzan

ekonomikoa nolabait ezartzen duten bestelako gaiak, hala nola, Israel eta Palestinaren arteko liskar armatua, Lehendakariaren epaiketa, eta abar. Komunikabideek krisialdia txalokatu eta zirikatatu dute, krisialdiaren arteko desberdintasuna markatu gabe. Izan ere, kaleko pertsonen bost axola zaigu burtsako krisia, bertan inbertitzen ez dugulako eta akzioirik ez dugulako, eta egunka-

rietan ez da hitzik agertu hipoteken krisialdiari buruz, guran benetan eragina duena eta aspalditik gure patriketan nabaritzen ari garena. Familien %40k etxeko hipoteka du, eta azken bi urteetan gora egin dute mailegok. Hipotekek gora egiten dutenean, poltsikotik dirua ateratzen didate. Azken hila-beteetan, hipoteken kostuak behera egin du, eta diru hori jendearen poltsikoan gera-

tzen da. Diru horrekin bi gauza egin ditzaket: aurreztea edo kontsumitzea. Erregaiaren kostuak ere behera egin du, izan ere, gaur egun, ibilgailuan gasolina sartzea duela 3 hilabete baino %20 merkeagoa da. Lanari dagokionez, Confedebaskeko presidentek langabezia %6ra ailegatu daitekeela adierazi zuen pasa den hilabetean. Ez da berri ona, baina kontuan izan behar da zifra ho-

rrek adierazten duela biztanleen %94k lana duela. Egia da automobilgintza bezalako sektoreek garai txarra biziko dutela, baina ezin dugu ahaztu enplegu-erregulazioko espedienteak, oro har, denboraldi baterako besterik ez direla. Enpresek ez dute betiko itxiko, behin krisialdia igarota berriro aurrera jarraituko baitute. Bizkaiko enprezetan enplegu-erregulazioko espedienteak daudenean, ematen du probintzia osoko langileak kaleratzen dituztela. Gauzak diren neurrian kontatu behar dira.

Euskadiko Ganberek erabiltzen dituzten datuen arabera, kontsumitzaileen konfiantza-tasa 90eko hamarkadako mailara jaitsi da. Salmentetan bereziki nabaritu duzue kontsumitzaileen konfiantza eza?

Esan bezala, errealtate osoz osorik azaldu behar zaio gizarteari. Ez dira datu txarrak ezkutatu behar, baina onak direnak ere agertu behar dira. Bidegurutze batean gaude, eta kontsumitzen jarraitu dezan, kontsumitzaileengan konfiantza nahikoa sortu behar dugu. Ezin diogu momentu oro beldurra gorpuzten sartu, egungo egoera ekonomikoa txarra dela eta ez dela. Horregatik diot komunikabideek ezin dutela errealtatearen parte bakarra erakutsi, kaltetu egiten gaituelako. Krisialdi honek erakutsi digu familia asko beren baliabideen gainetik bizi direla. Erantzukizuneko kontsumoaren alde gaude, hau da, bakoitzak ahal duen neurrian kontsumitu behar du. Azken urteak asko kon-

ELKARRIZKETA

tsumitzeko urteak izan dira, eta garai horretan izan ditugun gehiegikeriak orain ordaintzen ari gara. Praktikotasunaren filosofia berreskuratzen gaude. Eta hau primeran datorkigu, Gabonetako opariak ez direlako bakarrik Wiiak eta MP4ak izan, baizik eta betiko opariak: zapatak, udazkenerako gabardina...

Beharpen handiak nabarmenak izan dira merkealdietako lehen egunetik. Prezioen politika erasotzailea kanpaina gordezko bide bakarra ote da?

Egia da aurtengo merkealdia beharpen azpimarragarriekin hasi dela. Izan ere, garai normal batean, lehenengo beharpenak %10, %20 nahiz %30ekoak izaten dira, baina, aurtengo, %30etik gorakoak izan dira. Honen arrazoia stock ugari dagoela izan daiteke. Ezin dugu ahaztu merkealdiek sasoiaren bukaera markatzen dutela, eta orain arte saldu ez dena dendariak ahalik eta las-

terren saldu behar izango du, otsailaren 28an sasoi berriari ekin behar diolako. Modazko produktuek bizitza laburra dute, eta merkealdi asteetan saltzailea horiei irteera ematen saiatu behar da, orain saltzen ez badu, gero ezin izango baitu saldu. Hori merkataritza guztiek eza-gutzen duten prozesua da.

Portugaleteko merkataritxikien elkarteak iaz baino %50 gutxiago saldu duela dio. Komunikabideetan behin eta berriro agertutako krisialdiak "psikosia" sortu omen du kontsumitzaileengan. Zer deritoxo horri?

Salmenten zifren jaitsierari dagokionez, puztu egin dutela uste dut. Jende askok ez daki, baina komertzioek, behin hornitzaileak eta materiala ordainduta, %3 eta %5aren arteko mozkin gordina izaten dute. Horrek esan nahi du %50 gutxiago saltzen badu, bere negozioa itxi beharko lukeela. Horrez gain, ona izan ez den garai



Merkealdiak itxaropentsu hasi zituzten Bilboko merkatariek

batetik gatoz. Salmenten jaitsierak krisialdia azalarazi denean sortu direla diote askok, baina egia esanda, 2007. urtetik jadanik nabaritzen ari gara. 2007ko Gabonak oso konplikatua izan ziren salmentei dagokienez, eta baita urte osoa ere. Izan

ere, hipotekek garestitze nabarmena izan zuten garaiari buruz ari gara. Pasa den ekitaldian %10 gutxiago irabazi genuen, eta horrek galera izugarriak ekarri zituen. Ezin da gezurrik esan, lehenik eta behin norberaren kalterako delako.

Merkatarien arteko lehiakortasuna

“Ezkerraldeko komertzioek ere diru mordoak jaso dute

Eusko Jaurlaritzaren partetik”

Ezkerraldeko merkatarien elkarteek, besteak beste, Bilboko Udalak Bilboko Dendaren laguntzapean abenduan sustaturiko beharpen kanpaina zorrotz kritikatu dute. "Konpetentzia desleiala" bezala definitu dute. Zer deritoxo honi?

Ez nago horrekin ados. Eusko Jaurlaritzaren komertzio legealdiren barnean salmenta bereziak izendurakin ezagutzen den atal bat dugu. Horren babespean, duela urte batzuk, Gabonak baino lehenagoko egunetan Bilboko komertzio asko eskaintza bereziak antolatzen dituzte, guztiz legala eta aspalditik egiten dena. Aurtengo ere eskaintza horiek egin dira, lehen baino komertzio gehiagok, hori bai. Hori dela eta, Bilboko Udaleko laguntzarekin, kanpainari komunikabideetan publizitatea eman zitzaion, kontsumo bilbotarra suspertzeko asmoz. Ezberdintasun bakarra izan da aurtengo publikoki egin dugula eta ofizialtasun kutsua eman diogula, besterik ez. Bilbon erostera animatu nahi izan dugu kanpaina horrekin. Kritikatzeko dutenei hauxe esango



Bilboko Alde Zaharrak tankera anitzeko merkatal-guneak biltzen ditu

nike: zer egin duzu zuk erosleak zure herrialdean mantentzeko? Zergatik alde egiten dute Bilbora? Ezkerraldeko komertzioek ere diru mordoak jaso dute Eusko Jaurlaritzaren partetik, eta hori buruz haiek ez dute hitzik esan. Merkataritzaokak ez gara karitatezkoak, enpresak gara eta negozioa egiteko gaude hemen. Kontua da kanpaina horrek funtzionatu egin duela.

Honekin erlazionatuta, Santanderreko merkatariek ere Bizkaiko irratietan kanpaina egin zuten urtarrilaren 4an, igandean, euskaldunak Kantabriara erosketak egitera joan daitezela animatzeko. Nola baloratzen duzue deialdi hori?

Emaizta okerrak izan dituen kanpaina ona izan dela uste dut. Nik ez dut kompetentzia desleial bezala ikusten. Guk ere animatzen ditugu Kantabriako biztanleak Bizkaia etor daitezela. Ez dut uste urtarrilaren 4an euskaldunok

masiboki Santanderrera erostera joan garenik, Bizkaian eskaintza handiagoa dugulako. Santanderrek ez du hemengo erosleak erakartzeko merkataritza-pizgaririk.

Kontsumitzaileen ohiturak aldatu egin dira azken 15 urteetan zehar. Nola elkarbizi daitezke komertzio txikiak eta merkataritza-zentro handiak? Zer-nolako garapena izan dezake etorkizunari begira?

Hemen guztiok lehiatzen gara. Merkataritzak funtsezkoak diren hiru faktore ditu: eskaria, zerbitzua eta barne kudeaketa. Enpresa bezala, lehiakortasuna ez beste faktore bat ere badago, kontuan hartzekoa: ingurunea. Egun, merkataritza-inguruneak hobeto funtzionatzen ari dira. Zuk munduko dendarik hoberena izan dezakezu, baina leku okerrean kokatzen baduzu, ziru aski ez duzu asko salduko. Azkenik, enpresak bezala, inguruneak ere lehiatzen dira haien artean. Hori dela eta, gure helburua da Bilboko Alde Zaharrari balio berezia erantsa, eta horrekin batera, herengo komertzioak suspertzzea. Ez dut uste merkataritza-zentroek komertzio txikiak amaituko dutenik, eta, gainera, hori ez da kontua. Lehia hiriko eta kanpoaldeko komertzioen artekoa da. Gakoa marketinean eta publizitatean datza, hots, besteengandik ezberdintzea eta beste eremuei bezero potentzialak kentzea. Bilbao bera da merkataritza-zentronik handiena. Ez dago, egun, eskaintza handiagorik.

Eusko Jaurlaritzak pasaden udan suspertutako dekretuak euskal komertzioetan euskararen normalakuntza bilatzen du. Nola baloratzen duzue?

Urte asko daramatzagu komertzioetan euskararen erabilera sustatzen, gure hizkuntza delako eta baita gero eta jende gehiagok hitz egiten duelako ere. Etorkizunera begira, argi dugu euskarak gero eta presentzia handiagoa izango duela gure eguneroko bizitzan. Dekretuarekin ados gaude, baina bere funtzionamendurako zenbait arazo sor daitezke. Nire langileentzako ikastaroak ordaintzeko prest bango, lanorduetan, noski, erraztasun guztiak ematen badituzte eta hauek uko egiten badute, zer egin behar du? Langileak kaleratu? Ostalaritzako langile gehienak, adibidez, latinoamerikarrak dira. Zer egin daiteke errealitate honen aurrean? Enpresaburuok hautatu beharrean gaude.

ERREPORTAJEA

Euskal enpresen nazioartekotzea

Merkatu berriak arakatzea eta negozio-bideen bila aritzea enpresa bakoitzaren asmo enpresariala da, jarduera ekonomikoaren nortasunean dagoena, alegia. Euskal enpresek nazioartean duten presentzia gero eta oparagoa da.

Izan ere, sarritan, zenbait enpresarentzat, "asmoa" baino, "beharra" bilakatzen da kanpora joatea, hemengo merkaturako zati handiagorik bereganatu ezin dutelako edo negozioa garatzeko ezinbestekoa zaielako. Enpresaren tainak badu eragina atzerriara irteeraren erabakia hartzen denean? Krisi garaian ere enpresak kanpora doaz?

Enpresa baten nazioartekotzea esanahi ekonomiko anitzeko aukia dugu. Nazioartekotzea atzerriko herrialde batean inbertitzen hastea, inportazio-espazio lantegi eustea eta nazioarteko eskualdeetan lantegi berriak zabaltzea izan daiteke, besteak beste. Enpresa bakoitzak erabakitzen du, haren negozio eremu eta aurrekontuen arabera, zeintzuk diren egin nahi dituen berrikuntza motak.

Euskadiko Ganberen laguntza

Atzerriko enpresa batekiko lehenengo kontaktua egitea zaila izaten omen denez, prozesu honen hasierako urratsak errazteko, enpresen eskura jartzen dituen mekanismoak eskaintzen ditu Euskadiko Ganberak. Izan ere, erakunde hauek sortzeko hasierako asmoa industria eta kanpoko merkataritza sustatzea zen, eta, gaur egun, oraindik ere mantentzen dute nazioartekotzearen sustapena erakundearen helburuen artean. Euskadiko Ganberaren Azpikontratatzeko Sailaren ar-

duradun Aitor Guerrak horrela baieztatzen du, izan ere, legez, "gure baliabideen parte bat enpresen nazioartekotzera bideratu behar dugu".

Esan bezala, Euskadiko Ganberak hasierako laguntza eskaintzen die kanpora joan nahi duten euskal enpresari; besteak beste, herrialde horretako legediari nahiz lan agenda sortzeko lehenengo harremani buruzko laguntza. "Euskadiko Ganberak hiru adarretan biltzen dituzte eskaintako laguntzak", azaltzen digu Guerrak: "hezikuntza, informazioa eta sustapena".

Hezikuntzari dagokionez, urtean zehar Espainiar estatuko Ganberak espezializata daudenentzako eta ez daudenentzako ikastaroak eta egitasmoak prestatzen dituzte, araudia eta negozioa egiteko nazioarteko herrialde potentzialak izan daitezkeenak azalaraziz. Informazio laguntza Kanpo Merkataritzako Aholkularitzaren bitartez bideratzen da. Zerbitzu horrengana edozein enpresak jo dezake, kontsultak orokorrak egiteko (doakoak izaten dira) eta proiektu



Azokak atzerriko merkatuetara hurbiltzeko parada ezin hobea omen da

tu berriak martxan jartzeko zalantza pertsonalatuak argitzeko.

Nazioarteko merkatuei so egitea

Sustapenaren arloa "aldea aktiboena" da, Aitor Guerraren ustez. Bertan, Eusko Jaurlaritzak, Espainiar estatuko Gobernu Zentralak eta

Foru Aldundiek hartzen dute parte, lankidetzak akordioen bitartez. Ekonomikoki interesgarriak izan daitezkeen herrialdeetan merkataritzamisioko antolatzen ditu alor honek. Horretarako, euskal enpresentzat gutzia prestatzen dute: herrialde horretara heltzeko hegazkin-txartelak, ostalua, bisak eta bertako enprekin lan-elkarrizketak. Horrela, euskal enpresek "adar komertzialari ekin behar diote, besterik ez". Aukeratutako herrialdeei dagokionez, "norakoak

Euskadiko Ganberak aukeratzen dituzte", azaldu du Guerrak, "enpresek ere iradokizunak egiten dizkiguten arren". Azken urteetan Mexikoko omen da potentzial handienetarikoa erakutsi duen nazioa, eta Iran, berriz, orain arteko sarbide latzena izan duena.

Euskadiko Ganberen zerbitzuetara jotzen duten enpresen profila ETEena izaten omen da. Guerraren aburuz, "gure laguntzek ez". Aukeratutako herrialdeei dagokionez, "norakoak



Hiru lurralde historiko Eusko Ganberako presidentetako

Eusko Jaurlaritzaren laguntza: SPRI

Eusko Jaurlaritzaren babespean sortuta, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuak industria jardueran nagusi duten euskal enpresentzako laguntza eskaintzen du. SPRI Baltzuak 242 euskal enpresa aholkatu zituen 2007. urtean. Euskal internazionalizazioen enpresa-helmuga nagusia Polonia izan zen. "Internazionalizazioarekiko interes handiagoa antzematen dugu", adierazi du Mauri Lazkanok, SPRIren zuzendariak. Azken urteetan gorakada izan duten herrialdeak India eta Errusia dira. Arabiar Emirerri Batuek ere interesa piztu dute. 65 euskal enpresak bertan negozioa zabaltzeko zalantzak argitu dituzte SPRIk Dubain duen bulegoan.

ERREPORTAJEA

dezaketelako". Bere ustez, "ez da beharrezkoa enpresa handia izatea kanpora ateratzeko"; aitzitik, "enpresa bakoitzak zabaltzeko eta handitzeko dituen aukerak dira garrantzitsuena". Enpresen nazioartekotzearen arrazoiak galdetuta, Azpikontratazio Saileko burua horrela mintzo da: "normalean, kanpora irteteak bizirauteko beharri erantzuten dio". "Merkatu lokalak gero eta balio txikiagoa dauka", dio Guerrak, "eta era globalean lehiatzeko, nazioarteko merkatuei erreparatu behar diegu".

MCCren kasua

Arrasateko Kooperatiba Taldea (MCC) Euskal Autonomia Erkidegoko lehenengo enpresa taldea dugu eta Espainiar estatuko zazpigarrena. MCCk atzerrian daukan presentzia nabarmena da, eta mundutik zehar sakabanatu dituzten filialak ugariak dira. Salmentei dagokienez, Frantzia da MCC-

ren presentziarik nabarmena duen herrialdea, eta lantegi kopuruei buruz ari bagara, berriz, Txina (12 lantegirekin). Indian, Brasilen, Errusian, Mexikon eta AEBetan ere baditu MMCK korporazio-ordezkaritzak.

Arrasateko Kooperatiba Taldeko Nazioartekotze Saileko zuzendaria den Josu Ugartek kanpora ateratzearen funtsezkoitasuna azpimarratu du: "enpresa guztien helburu nagusia nazioartekotzea izan behar da"; batetik, "zure lehiakideekiko jarrera hautemateko balioko dizulako", eta, bestetik, negozioa hazteko eta baliabideen kudeaketa hobetzeko. Atzerrian negozioak zabaltzearen arrazoiak ere alor ekonomikoan bilatu behar dugu. "Gure ikerketek erakusten dute nazioartekotu diren kooperatibak izan direla enplegu gehien sortu dutenak", argitu du Ugartek. Nazioartean presente egoteak lehiakortasunaren hobekuntza dakar, eta horrek "salmenten gaineko eragin



Asiako herrialdeek aukera paregabea suposatzen dute

zuzena izaten du". Horrez gain, Ugartek atzerriara irtearen onura kulturalak ere azpimarratzen ditu, "beste kulturek negozioak nola ulertzen dituzten ezagutzeko aukera eskaintzen digulako".

14.000 pertsona atzerrian

Arrasateko Kooperatibak argi du helburu hau, datuek hala erakusten baitute. Enpresa-talde gipuzkoararen atzerriko salmenten ko-

purua 4.500 milioi eurokoa da, industria-taldearen irabazien %57 horri dagokiolarik. Egun, "14.000 pertsonak egiten dute lan nazioartean ditugun 70 zentroetan", azaldu du Ugartek.

Egungo ikuspegi ekonomiko latza dela eta, Ugartek ez du uste nazioartekotzearen geldiketarik egongo denik; "jakina, egoera ez da batera erraza izango", onesten du MCCren kanpo merkatutzako arduradunak, "baina

nazioartekotzea ez da epe laburrerako proiektua, epe luzerakoa baizik". Hazkunde ekonomikorik gabeko egoera izanda ere, Arrasateko Kooperatibak argi du: "datorren urteetan garapena non izango den badakigu", hala nola, "Brasil, India, Txina eta Errusian". "Datozen hamarkadetan bertan izatea funtsezkoa bilakatuko da", adierazi du Ugartek. Horren ondorioz, "horretan oinarrituko dugu gure etorkizunerako apustua".



Nazioartekotzea gero eta garrantzitsuagoa bilakatzen da egungo merkatuetan

Cebek, internazionalizazioaren alde

Bizkaiko Enpresarien Elkarteak (Cebek) 2009rako aurreikuspenen txostenean ere azpimarratzen du internazionalizazioaren garrantzia. Aurtengo krisialdia gainditzeko eskaintzen dituen gomendioen artean, merkatuaren zabalkuntzak eta berrikuntzak pisu handia dute. Cebeken aburuz, ekitaldi honetarako, enpresek "beren berrikuntzaren gaitasuna handitu behar dute, emaitzei dagokienez eta enpresari berari dagokionez, orokorrean". Horrez gain, internazionalizazioaren aldeko apustu garbia egiten du ugazaba bizkaitarrak, "hura zabaltzeko eta alor guztietan areagotzeko", hala nola, salerosketan eta ekoizpenean.

Hannover 2009: nazioarteko azoka industrial garrantzitsuena

Nazioarteko azokak munduko enpresaburu eta be-

zeroen arteko bilgune bihurtzen dira. Eusko Ganbe-

rek eskainitako laguntza ekonomikoaren bidez, azoka

hauetan "euskal enpresek presente egoteko azpiegiturak ahalbidetzen ditu erakundeak", Aitor Guerraren hitzetan. Zentzu horretan, apirilaren 21etik 25era Hannoverren (Alemania) izango den Industria Azoka azpimarratzen du Euskadiko Ganberako Azpikontratatzeko Sailaren arduradun Aitor Guerrak, "munduko garrantzitsuena delako"; era berean, Euskadiko Ganberak harro egoteko beste arrazoi bat ere badute, "Espainiar esta-

tuari dagokionez, azoka honen antolakuntza Bizkaitako Merkataritza Ganberaren eskutik etorriko baita". Bertan, Espainiar estatuko 52 enpresak hartuko dute parte. Haietatik 23 Euskal Autonomia Erkidegokoak dira, 11 bizkaitarrak eta 12 gipuzkoarrak. Azokan kokaturiko standen bidez, euskal enpresaburuak Europako bezero potentzialeari beraien produktu eta makineria industrialak erakutsiko dizkiete eta lehiakortasun maila alderatu.



Azoka industrialak enpresak eta bezeroen arteko bilgune bihurtzen dira

ELKARRIZKETA

PELLO GONZALEZ

Gipuzkoako Ekonomia eta Ogasun Departamentuko foru diputatua

“Iruzurrari buruzko gaiak ikertzeak hautsak harrotu ditzake”

Legealdi konplikatuia izan du Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko diputatu Pello Gonzalezek. Irungo Ogasun Bulegoko iruzurrak eta, krisialdiaren eraginez, Gipuzkoako Lurralde Historikoak bizi duen industria jardueraren beherakadak irtenbide berritzaileak bilatzera behartu dute. Gipuzkoako egoera ekonomikoa eta fiskalari buruzko zertzeladak eskaintzeko, foru diputatuarekin bildu da Ekonomiaren Kazeta.

Abenduan, azkenik, onartu egin zenuten Gizarte Zerga orokorra %28koa izatea (%24koa ETEentzat), Bizkaia eta Arabarekin parekatuz. Nola baloratzen duzue ika-mika handia eragin duen lorpen hau?

Garrantzitsuena da azkenean enplegua kontuan hartzen duen foru arau bat onartzea lortu dela, Gipuzkoako enpresen berrikuntza eta lehiakortasuna sustatzeko pisuzko neurriak hartzen dituen. Nire iritziz, benetako garrantzia du horrek, batez ere oraingo krisi egoeran. Nahiz eta zerga tasari buruzko eztabaida komunikabideetako tituluetan mai-zegi agertu, ez da eztabaida nagusia.

Hiru lurralde historikoen arteko bateratze fiskala desiragarria litzateke?

Lurraldeen arteko zerga koordinazioa desiragarria da, baina ez da komeni uniforme-tasun gisa ulertzea. Adibidez: Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, alde nabarmena dago hiru lurraldeetako produktzio sareen artean, eta, zerga politika egitean, egoera hori hartu behar da kontuan.

Jose Maria Bravok Irungo Ogasunaren egindako iruzurraren azken erantzuna Auzitegiek emango dute. Politikoki, zer-nolako kostuak izan ditu Foru Aldundirako eta, bereziki, Ekonomia eta Ogasun Departamenturako?

Ogasun eta Finantza Departamentuaren eronka da gipuzkoarren konfiantza ahuldua indarberritzea. Zentzu horretan, agintaldiaren hasieraz gerotzik, sakonago ikertu dira Irungo bulegoan pres-



Gonzalez Diputatuak gardetasun fiskalaren aldeko apustu garbia egin du

kripzioagatik edo kaudimengabeziagatik baja emandako espediente guztiak. Horren ondorioz lortutako informazio guztia auzitegiara bidali dugu, haiek arduratzen baitira zigor erantzukizunak zehazteaz. Bestetik, barne kontrolako estrategia bat jarri du abian departamentuak, zerga-bilketari lotutako zerbitzu guztien kontrolak areagotzeko asmoz, betiere, horrelako gertaerak berri-z gertatzea saiheste aldera.

Jauregirena edo Jose Maria Bravorena bezalako kasuek gipuzkoar instituzio publikoen gardentasuna jartzen al dute kolokan? Nola berreskuratu daiteke zergadunen konfiantza?

Jakin badakit iruzurrari buruzko gaiak ikertzeak hautsak harrotu ditzakeela, baina argi dut zein den nire eginkizuna eta gipuzkoarrek zer exijitzen didaten: ikerteta azken bururaino eramatea, lapurtutako di-

ria berreskuratzeko behar diren pausoak ematea eta gertatutakoa berriz ez gertatzeko neurriak hartzea. Argi dut printzipio horietan oinarritu behar dela gure jarduna, eta ez dut horiek baztertzeko asmorik.

Eustaten datuen arabera, Gipuzkoako industriak %12,7ko atzerakada izan du pasa den ekitaldian. Gipuzkoako herrialdeetan industriaren pisua nabarmena izanda, zein neurri hartu ditu Ogasun Departamentuak enplegu industrialaren sustapenerako?

Industriako enpleguari eusteko neurriak oso lotuta daude berriki onartutako Sozietateen gaineko Zergarekin, eta, haiekin batera, gure enpresa lehiakorren inbertsioak suspertzeko, berrikuntza kenkari- en multzo handi bat onartuko da. Gure ustez, bide hori da eraginkorrena enpresek merkatuan duten posizioa indartzeko. Gainera, ahalegin

handia egiten ari gara likidez- arazoak murrizteko neurriak abian jar daitezten.

Bruselako Auzitegiek EAEk bere arau fiskalak izateko eskubidea duela berretsi dute. Amaitutzat eman dezakegu bestelako Autonomia Erkidegoekin (Errioxa, Kantabria, Gaztela eta Leon) izandako gatazkak?

Europar Batasuneko Auzitegiak argi utzi du lurralde historikoek eskubidea eta ahalmena dutela Espainiakoez besteko zerga arauak prestatzeko eta beraien beharrei hobekien erantzuteko zerga sistema antolatzeko. Auzitegiaren erabaki hori Ekonomia Itunak indarraldiko hogeita bost urteotan izan duen onarpen juridikorik onena da, eta gure zerga sistema sendotzeko behin betiko pausoa da. Espero dezagun pribilegioen eta Europar txertatu ezinaren argudioez Itunari eraso dioten

guztiekin sententzia kontuan hartzea eta ebazteko dauden prozedurak ez onartzea.

Foru Aldundiaren zergen bidezko diru-bilketa gero eta murriztagoa omen da. Zer-nolako eragina izango du gizarte zerbitzuetara de- dikatzen den aurrekontuan? Eta Aldundiaren bestelako inbertsioetan (errepideak, diru-laguntzak...)?

Egia da zerga-bilketako ziklo zail bat datorrela eta 2009an diru-sarrerak %5 murriztea aurreikusita dagoela. Hala izanik ere, eta gure zorpetze ahalmenari eta diruzaintzako garrantzirik esker, 2009rako, 2008koa baino %14 handiagoa den aurrekontua onartu dugu, betiere, lehentasuna emanda gizarte politikako gastuari eta ekonomia suspertu dezake- ten inbertsio publikoei. Bi kapitulu horietan inoiz baino gehiago inbertituko dugu, eta beste urte batzuetan baino ahalegin handiagoa egingo dugu. Logikoa denez, zuhurtasunez eta moderazioz jokatu behar dugu lehentasunezkoak ez diren gastu eta proiektuetan.

Aurten Eusko Legebiltzar- rarako Hauteskundeak ditugu. EA eta EAJ ez dira batera aurkeztuko. Martxoan heltzen den bitartean, alderdien arteko haustura politikoa horrek eragina izan ditzake Ogasunaren eguneroko kudeaketan?

Hauteskundeek ez diote eragiten Ogasun eta Finantza Departamentuaren lan jarduerari. Maila desberdinetan daude kokatuta; zentzu horretan, Administrazioaren jarduna eta herritarrentzako zerbitzua normal dabilta, hauteskundeak izan edo ez.

Gure gizarte erantzukizunak ingurumena zaintzera behartzen gaitu...



...maila handiko teknologiarekin

ITP Taldean ahalegin handia egiten dugu ikerketa alorrean hegazkin-motor eraginkorragoak eta atmosferara CO² gutxiago isuriko dutenak diseinatu eta egiteko, teknologia horren garapenean berrikuntzak eginez, eta etengabe hobetzeko talde-lana bultzatuz. Eta horregatik, Ingurumen alorreko Baimen Integratua jaso duen Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa gara.

Ingurumena errespetatzeari dagokionez aitzindari izateko jarri genuen helburua betetzen ari gara.



www.itp.es



GRUPO
Industria de Turbo Propulsores, S.A.

TEKNOLOGIA

Posizionatze globaleko sistema: GPS

Lurraren edozein objektu, pertsona nahiz lekuen kokalekua metro gutxi batzuren akats tarterekin definitu dezakeen tramankulu elektronikoa dugu GPSa. Lurra osoko estaldura 24 sateliteren bidez lortzen da, gure tramankulura informazioa bidaltzen dutenak, hain zuzen ere.

AEBtako Defentsa Saileko asmakizuna izan omen zen baina egun kaleko milaka erabiltzaileen ibilgailuetan aurki ditzakegu sistema hauek. Izan ere, teknologia aurrera egin duen heinean, haren prezioak behera egin dute eta edozein patriken eskura jarri dute hura erostea. Gaur egun eros daitekeen ia edozein telefono mugikorrean aurki ditzakegu GPS sistemako aukera barnean. Hala ere, GPS oso bat kotxean izatea gomendatzen da, batez ere bidaiak egitera ohituta dauden pertsonentzat.

NAVMAN S901

SALNEURRIA:
290€

GPS arrunteko funtzio guztiak eskaintzen ditu baina berezitasun batekin: bi megapixe leko argazki-kamara du. Turismo bidaiak egitean, esaterako, argazkiak ateratzeko aukera ematen du eta argazki horiek GPSko informazio geografikoarekin erlazionatu daiteke, ondoren, Interneten bidez konpartitu daitezkeen argazki datu-baseak sortzeko.



TOMTOM XL EUROPE 31

SALNEURRIA:
249,95€

TomTom bermearekin, hona hemen GPG salduenetarikoen azken modeloa. Europako mapa gaurkotuak ditu barne eta azken eguneratze GPSan sartzeko aukera luzatzen du TomTomek Interneteko web orrialdearen bitartez. Berezitasun bezala: errepide-zirkulazio radarren presentzia abisuak botatzen ditu modelo honek.



ASUS R300

SALNEURRIA:
179€

140 gramo inguruko pisua duenez, modelo honek oinez edo bizikletaz egindako bidaidarientzako bereziki prestatutako sistema dugu. Bere ezaugarriak esker musikaz eta bideoz gozatzeko aukera eta ukimena bidezko erabilera eskaintzen ditu. Mapak eta irudiak bi eta hiru dimentsiotan ikus daitezke.



ARDOAK

ERRIOXAKO ARDOAK

Errioxak ardoarekin izan duen harremana aspalditik dator. Jadaniak, Erdi Aroan ardo monastegietako monjeek gordetzen zuten. Egun, jateko orduan edozein mahai gainean aurki dezakegu. Izan ere, Espainiar estatuan kontsumitzen den ardoen portzentai nagusia Errioxako Jatorrizko Izendurako ardoei dagokie. Errioxak urtero 250 milioi litro ardo ekoizten ditu, horren zatirik handiena esportatzekoa dena.



BELTZA

FAUSTINO V RESERVA (2002. urtea)

SALNEURRIA:
10,85 €
PRIMERAN DOA:
errekiekin



ZURIA

MARQUES DE MURRIETA YGAY (1999. urtea)

SALNEURRIA:
19,50 €
PRIMERAN DOA:
hegatziko haragiekin

BELTZA

VIÑA ARDANZA (2000. urtea)
SALNEURRIA:
19,95 €

PRIMERAN DOA:
haragi gorriekin



GORRIA

MARQUES DE CACERES (2006. urtea)

SALNEURRIA:
5,25 €
PRIMERAN DOA:
barazkiekin



JATETXEA

DON PABLO JATETXEA



Jatetxe honek arreta handiko apainketa du

Sukaldaritzaren anaia txikia deritzotenari dugu pintxoak. Don Pablo jatetxean pintxoaren zaleek badute gustura sentitzeko parada. Izan ere, jatetxe honetako pintxoak Espainiar estatu mailako

sari anitzen irabazleak izan dira, besteak beste, 2004ko Dastatze Oneneko Urrezko Saria. Teresa Gil da pintxo irabazle eta plater goxo hauen egilea. Lortutako sarien zerrenda luze izanda,

Gilek ohiko nafar sukaldaritza eta modernoa uztartzen dituen jakiak prestatzen ditu. Zuria eta beltza koloreak ditu nagusi jatetxean eta Belle Epoque garaiko apainketak ditu hormetan. Jankideak gitorzeko, jazz musika eta klasiakoa entzuten da lokal barnean. Jatetxeak bi solairu ditu. Behekoa, pintxoak eta edariak hartzeko prest eta goikoa, kartako jaki goxoak dastatzeko jantokia. 40 pertsonentzako lan bilerak eta biltzar familiarrentzako gelak erreserbatzeko aukera ere eskaintzen dute.

2 PERTSONENTZAKO MENUA

- Huelvako ganbak plantxan, sasoiko perretxiko eta pinaziko pralinarekin
- Pil-pil saltsako hegaluzea kokotxekin
- Idi-azpizuna plantxan, patatak, hirugiharra eta fruitu lehorreko nahaspilarekin
- Txokolatzeko souffle, ingelez krema eta laranjazko saltsarekin



GUZTIRA: 107€
(edariak aparte)

Don Pablo Jatetxea / Navas de Tolosa kalea, 19 / 31002-Iruña-Nafarroa / Telf 948 225 299 / Fax 948 210 264 / www.restaurantedonpablo.com

AISIALDIA


Estresari aurre egiteko proposamena

Lanak aste osoan zehar eragiten duen estresari aurre egiteko, hona hemen hilabete honetan Ekonomiaren Kazetak proposatzen duen aisialdirako ideia:

Smartbox®: Wellnes&Spa

Hurrengo hilabeteetan turismoa saltzeko ideia orijinala izango dugu mintzagai: gai desberdinetako esperientziak eskaintzen dituen turismo eragilea da Smartbox®. Dendetan fisikoki nahiz Interneten bidez eskura daitezke bonoen bidez, mota guztietako turismoa goza dezake: erlaxatzeko tratamenduak eta spa mundua-

rekin erlazionatutak, gastro-nomia bonoak, asteburuak igarotzea bereziki aukeratu-tako Europako hoteletan... Horretarako Smartbox® enpresak Espainiar estatuko ostalaritza eta agentzia nagusiekin lankidetzak akordioak doi zerbitzu hurak eskaini ahal izateko, eta salneurriak ikusita, patrika guztien eskura egon daitezkeenak.



Santanderreko Talasoterapia zentroaz gozatzeko aukera eskaintzen du bonoak

Hilabete honetarako, Smartbox®: Wellnes&Spa izeneko bonoa aukeratu dugu, bi aukera hauek eskaintzen dituenak (bata hautatzeko)

AUKERA 1: Lasaitasun Osoko Tratamendua

- Hidromasajeko bainua (20 min)
- Masaje erlaxagarria (30 min)
- Algetako estalkia (30 min)
- Uretako espaziorako sarbidea

AUKERA 2: Ongizate Terapeutikoko Tratamendua

- Hidromasajeko bainua (20 min)
- Ur-lokatzazko estalkia (30 min)
- Bizkar edo hanketako masajea (30 min)
- Uretako espaziorako sarbidea

SALNEURRIA:
99,90€ pertsona bakoitzeko

NON EROSI:
FNAC dendetan eta www.smartbox.es webgunean

NOLA ERABILI:
behin bonoa erositara, kaxaren barneko dokumentazioak hotelak nahiz esperientzia desberdinak eskaintzen ditu. Behin, guztien artean bata erabakita erabakita, bertako telefonora deitu eta erreserba egin. Aukeraturako zerbitzua erabiltzerako momentuan, paperezko bonoa eman behar da.



LAN

ESKAITZAK

ADMINISTRARIA (Durango)
Durangoko enpresa baterako administraria. EGINKIZUNAK: administrazioko eginbehar orokorrak, kontabilitatea eraman eta jendaurreko arreta (telefonoa atentitu, bezeroak etab.) EZINBESTEKOAK: Administrazio arloko Ziklo Formatiboa, kontabilitateko ezagutzak eta euskara maila egokia. ORDUTEGIA: astelehenetik ostiralera goizez eta arratsaldez (9-13 eta 16-20), larunbatetan goizez (10-13). KONTRATUA: hasieran aldi baterakoa, baina mugagabe bihurtzeko aukerarekin. ESKUALDEAN BIZILEKUA.

ADMINISTRARIA (Arrasate)
Arrasateko enpresa baterako administraria. EGINKIZUNAK: administrazioko eginbehar orokorrak, kontabilitatea eraman eta jendaurreko arreta (telefonoa atentitu, bezeroak etab.) EZINBESTEKOAK: Administrazio arloko Ziklo Formatiboa, kontabilitateko ezagutzak eta euskara maila egokia. ORDUTEGIA: astelehenetik ostiralera goizez eta arratsaldez (9-13 eta 16-20), larunbatetan goizez (10-13). KONTRATUA: hasieran aldi baterakoa, baina mugagabe bihurtzeko aukerarekin. LEHENBAILEHEN LANEAN HASTEKO. DEBAGOIENEAN BIZILEKUA.

INGELESEKO ETA ALEMANEKO IRAKASLEA
Eskoriatzako ikastetxe baterako INGELESEKO eta ALEMANEKO IRAKASLEA behar da. EGINKIZUNAK: DBHko 2. mailan klaseak eman (6 ordu ingelese eta 2 ordu alemana), EZINBESTEKOAK: Ingles Filologia/ Aleman Filologia eta EGA. BALORAGARRIA: IZG (Irakasgaitasunaren Ziurtagiria, CAP). KONTRATUA: ordezkapeneko. JARDUNALDIA: murriztua. BEREHALA LANEAN HASTEKO. INGURUKO HAUTAGAIAK.

SALTZAILEA
Lasarten kokatua dagoen dendarako behar da: ELEKTRODOMESTIRAKO SALTZAILEA. Ezinbesteko baldintzak: Lan esperientzia edukitzea denda mota horretan eta euskara menperatzea. Eskualdean bizitzea eta prestasuna goizez eta arratsaldez lan egiteko. LAN BALDINTZAK: 2 hilabeteko kontratua. Soldata: 1.000€ gordinak/hilabeteko. Berehala hasteko

GUIA DE MUSEO
Se necesita un/a Guía para museo en Gernika Lumo: atención al público, exposición de salas, información. Imprescindible: Diplomatura o Formación Profesional Superior con nivel alto hablado de francés, euskera, inglés y castellano. Se valorará experiencia en atención al cliente. Se ofrece: contrato por obra o servicio de 6 meses de duración con posibilidad de continuar. Incorporación en Mayo/ Junio aprox. Horario: de martes a domingo (a la mañana). Lunes: solo 8 al año. Salario bruto: 20000euros/año.

METRE Y/O COCINERO/A
Se precisa metre y/o cocinero/a para Mungia. Funciones: realización de caterings, canapes, pinxtos, asistencia a eventos, organización del catering, registros de calidad, coordinar pedidos, etc. Imprescindible experiencia mínima en puesto de 12 meses, persona trabajadora e implicada y carnet de conducir. Contrato indefinido a jornada completa en horario normalmente de mañana 9 a 14:00h lunes a viernes + asistencia a eventos. Salario entre 1000 y 1300 euros negociables x 14 pagas. Incorporación inmediata.

ENCUESTADOR
Realización de 14 encuestas diarias de sondeo electoral para el Gobierno Vasco en domicilios. Contrato por obra de aproximadamente 15 días. Retribución en torno a 55,50 € netos/día. Incorporación el 2 de febrero.

Lan eskaintza gehiago Lanbide.net Euskal enplegu zerbitzuko webgunean.

SUDOKU

Buruari gogor eutsi eta ebatzi sudoku hau

			9	8	2		4	
	4							
7				1	3	8		5
			1		7			3
6						2		
		4		3			9	
1		2			4			6
	6	7			5			
								9

ERANTZUNAK

Zenbat denbora eman duzu sudokua ebatzeko?
Hona hemen erantzunak.

6	2	3	1	7	9	5	8	4
4	8	1	5	2	7	3	9	6
9	7	4	6	7	8	2	1	3
7	6	9	8	3	2	4	1	5
8	1	2	6	4	9	3	7	9
3	5	5	7	4	7	1	8	6
7	2	7	4	1	6	6	2	7
5	9	8	3	3	4	1	6	2
2	3	6	9	5	7	1	4	8
1	4	1	2	7	4	1	4	3

HARREMANETARAKO TELEFONOA: 94 421 30 31
E-MAILA: ekonomiarenkz@leizaola.org
POSTA HELBIDEA: 612 Posta Kubxtilla, 48080 Bilbao
TESTUAK ETA ARGAZKIAK: Iais San José
DISEÑUA ETA MAKETAZIOA: Gonzalo Peña
EUSKARAREN ARDURADUNA: Labayru Ikastegia
EGILEA: Leizaola Elkarte
HARPIDETZAK: 94 421 30 31 telefonon.



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Ekintza honek Bizkaiko Foru
Aldundiaaren Kultura Sailaren
laguntza jaso du.

€konomiarenKZ

Euskal Ekonomiaren Kazeta

2009ko Otsaila

Lo nuestro es **EL FUTURO**



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Lo nuestro es garantizar un mañana lleno de oportunidades para la juventud de Bizkaia. Un futuro que se construye desde el presente, con programas educativos y de formación, ayudas y subvenciones, propuestas culturales y de ocio. De esta manera, nuestro compromiso es sembrar para recoger, crear riqueza para repartirla en una Bizkaia que cada día es más dueña de su porvenir.

BIZKAIA, lo nuestro